

GOBERNU BATZARRA

2007.09. 17

Beh. Beh. Alkatea:

Jokin Azkue Arrastoa

Zinegotziak:

**Olatz Peon Ormazabal
Onintza Lasa Arteaga
Yurre Peñagarikano Zubeldia
Andoni Iturzaeta Arbillaga**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Tolosako Udaletxean, bi mila zazpiko irailaren 17an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen den puntu bakarra (aurreko akta) onartzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-Euskal Herria Plazako Zentro sozialaren Gastu-Sarreraren likidazioa.

3.-Euskal Fondoak bidalitako idatziari erantzuna.

4.-Klub federatuei dirulaguntza orokorrak.

5.-06/07 Eskola Kiroleko dirulaguntzaren likidazioa.

6.-Osasun zaintza zerbitzua adjudikatzeko proposamena.

7.- 20. zenbakia duen faktura- zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Behin Behineko alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2007ko irailaren 10ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Euskal Herria Plazako Zentro sozialaren Gastu-Sarreraren likidazioa.

Gobernu batzar honek, 2005eko martxoaren 21ean, Euskal Herria Plazako Zentro Sozialaren zerbitzuak gestionatzeko ardura lurramendi egoitzari eman zion.

Hori horrela, 2007ko maiatzatik uztaileira gastu-sarrerren likidazioa aurkeztu du lurramendi egoitzak.

Aipatu gastu-zerrenda ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aurkeztutako likidazioa onartzea.

GASTUAK	50.258,20
SARRERAK	17.010,57
APORTAZIOA	33.247,63

BIGARREN.- Erabaki honen berri kontuhartzaileari eta lurramendi egoitzari ematea.

3.- Euskal Fondoak bidalitako idatziari erantzuna.

Euskal Fondoak bere gobernu organoa berritzeko Udal honen ordezkaria izendatzea eskatu du.

Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Joxe Agustin Arrieta Egiguren izendatzea Udal honen ordezkari Euskal Fondoan.

BIGARREN.- Erabaki honen berri Arrieta Egiguren J.ri eta Euskal Fondoari ematea.

4.- Klub federatuei dirulaguntza orokorrak.

2007ko ohizko kirol dirulaguntzen oinarrien irizpideak jarraituz, eta Kirol batzordeak honi buruz jaulkitako diktamenarekin bat etorritz, Gobernu batzarrak, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2007ko ohizko dirulaguntza hauek onartzea:

TOLOCA C.F.	24.946 €
TOLOSALDEA I.K.T.	16.631 €
TOLOSALDEA ARRAUN TALDEA	5.000 €
ORIAKO T. ESKOLA	3.710 €
BEOTIBAR C.D	2.215 €
ALPINO UZTURRE	2.700 €
LASKORAIN I.K.E	1.630 €
TOLOSAKO ARRANTZALEAK	2.077 €
TOLOSAKO XAKE	2.050 €
PILOTA ANIZTASUNA	1.100 €
EMAKUME PILOTARI	2.000 €
GUZTIRA	64.059 €

BIGARREN.- Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari, Kirol Departamentuari eta interesatuei ematea.

5.- 06/07 Eskola Kiroleko dirulaguntzaren likidazioa.

Kirol batzordean teknikariak azaldu ditu 2006/2007 ikasturteko eskola kiroleko memoriak.

Memoriak aurkeztu dituzten eskolak hauek dira:

- **SAMANIEGO IKASTETXEA**
- **LASKORAIN IKASTOLA**
- **HIRUKIDE-ESKOLAPIOAK ETA HIRUKIDE SAN JOSE IKASTETXEA.**

Kontuan izanda 2006/2007ko eskola kiroleko dirulaguntzen oinarrien irizpideak eta puntu bakoitzari 30€-ko balioa eman zaiola, Kirol batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Eskola Kirola 2006/07 ikasturteko ondorengo dirulaguntzak onartzea:

ESKOLA	PUNTUAK	EURO
LASKORAIN IKASTOLA	291	8.730
HIRUKIDE JESUITINAS	234	7.020
HIRUKIDE ESKOLAPIOAK	150,5	4.515
SAMANIEGO	213	6.390
GUZTIRA		26.655

BIGARREN.- Erabaki honen berri Kontuhartzailtzari, Kirol departamentuari eta interesatuei ematea.

6.- Osasun zaintza zerbitzua adjudikatzeko proposamena.

Osasun Zaintza zerbitzua adjudikatzeko kontratazio mahaia elkartu zen aurtengo uztailaren hamaseian.

Aurkeztu diren proposamenak hauek izan dira:

- **ASISTENCIA MEDICO LABORAL S.L. (NEXGROUP).**
- **UNIPRESALUD.**
- **GESPREEN**

Osasun Zaintza zerbitzua prozedura negoziaturen bidez kontratatzeko tramitatu den espedientea ikusita eta Giza baliabideetako teknikariak egindako proposamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Lizitazio ekitaldi honen baliozkotasuna deklaratzeko eta, ondorioz, behin betiko adjudikatzea UNIPRESALUD-i Osasun Zaintza zerbitzua, 6.467,5 € urteko prezioaz, hiru loteak barne.

BIGARREN.-Kontratuaren epea, bederatzi hilabeterako izango da, kontratu administratiboa sinatzen denetik.

HIRUGARREN.-Alkateari ahalmenak ematea bidezko kontratu administratiboa sinatzeko, horretarako eguna eta ordua finkatuz.

7.- 20. zenbakia duen faktura- zerrenda.

Kontuhartzailtzak 20. faktura-zerrenda, 537.879,01€-koa, aurkeztu du.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatutako 20. faktura-zerrenda onartzea.

BIGARREN.- Onarpenaren berri Kontuhartzaitzari ematea.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10:00etan.

Beh. Beh. ALKATEA

IDAZKARIA